

SUSTRAIETATIK ERALDATUZ

HAUR
LITERATURA
BERDINTASUNAREN
ALDEKO
ALIATU



EGUZKITZA ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN IKERKETA



AURKIBIDEA

4	HITZAURREA
6	ZERTARAKO LAN HAU
8	MARKO TEORIKOA
10	TESTUINGURUA
16	METODOLOGIA
20	EMAITZAK
35	ONDORIOAK
37	BIBLIOGRAFIA

Ipuin^{ak}

ERREALITATETIK
FANTASIARA JAUZI
EGITEKO HEGAZKINAK
DIRA. MUNDU BERRIETARA
ERAMATEN GAITUZTE;
BAINA, NORBERE
BARRURA BEGIRATZEKO
AUKERA EMATEN DIGUTE
ERE. HITZEN BIDEZ,
EGUNEROKOAN ETEN
BAT EGIN, ETA GUREKIN
LOTZEKO AUKERA DIRA
IPUINAK.

Ipuina, baina, ispilua da ere. Urrutira joan beharrean, bertan geratu eta barrura begirako bidaia egiten du irakurleak. Amorrua zer den erakusten digute ipuinek, bai eta tristura, beldurra edota bakardadea ere. Pertsonaiaren sentimenduak norberak borborka dituen bizipenen antzekoak direla ikusiko du haurrak, eta beraz, hala sentitzea arrunta dela ondorioztatuko du.

Sentimenduak identifikatu eta hauekin nola jokatu ikasiko du pertsonaiaren eskutik hartuta. Ipuinen bitartez beraz, eguneroko bizitzari aurre egiteko erremintak eskuratzen ditu umeak. Gure barrua islatzen duen bezala, inguratzen gaituen gizartearen ispilu ere dira ipuinak. Gure jendartearen balioak, jarrerak eta ezagutzak aurkitzen ditugu maiz lerro artean. Eta tamalez, dezente

dira ipuinetan betikotu beharko ez ziren ereduak. Ipuinek irudimena eta jakin mina pizten dituztela argi dago; zorritzarrez, ordea, hain egokiak ez diren balio eta jarrerak erreproduzitzen eta mantentzen laguntzen duten tresnak ere badira.

IBAI MAKINISTA, PILOTU, SUHILTZAILE EDOTA MEDIKU LANETAN AURKITU DUGU. KATTALINEK, BAINA, EZ DITU LANBIDE GUZTIEN ATEAK ZABALIK AURKITU.

Zaintzari lotutako lanen gehiengoa amek edota amonek eramaten dute sorbalda gainean eta oso gutxitan, gutxiegitan, aurkitzen ditugu familia eredu tradizionalari ihes egiten dion eredurik. Eta noski, ipuinez ipuin osatzen goazen sokak haurraren imaginario kolektiboa lotzen du.

Aurrerapen handiak egon diren arren, sexismoak presente egoten jarraitzen du eta hau arazo bat da ez dituelako desberdintasun sozialekin amaitzen. Gainera, kasu batzuetan badirudi berdintasun irudi bat eskaini nahi dela nesketan tradizionalki mutilen estereotipoak eta ezaugarriak izan direnak islatuz eta ez da prozesu berdina antzeman mutiletan, esate baterako, normaltzat jotzen da neskek urdina erabiltzea, baina ez da oso ohikoa mutilek arrosa erabiltzea.



Haur literaturan genero ikuspegia txertatzearen beharra eta garrantzia mahai gainean ipini nahi du lan honek. Haurrei zuzendutako ipuinak eta generoa harilkatuz, berdintasunean oinarri duen jendartea estu lotuko dugunaren uste osoz.

Bizitza osoan dira beharrezko halako bidaiatxoak, baina are garrantzitsua goak dira haurtzaroan. Gurasoekin lotura afektiboa eraikitzeke tresna aproposak izaten dira ipuinak, iluntzean, loaren aurretik bularretik ipuinetara egiten dute salto gure haurtxoek. Giro berezia sortzen da guraso eta umearen artean ohearen goxotasunaren bueltan. Hasieran disfrutatzeke eta agurtzeke momentua dena, gai potoloak lantzeke aukera bihurtzen da ondoren. Lantzeke errazak ez diren gaiez aritzeko abagunea bihurtzen baitira ipuinak. Nola sortzen gara? Heriotza, sexualitatea ... tabu izan ohi diren gaiak ederragoak dira ilustrazio eta hitzak biltzen dituen ipuinean. Eskolan ere baliabide ezin aproposagoa da ipuina. Izan ere, berebiziko garrantzia dute ipuinek haurren garapenean. Bizitza beraren leihoa da ipuina. Ipuinetan aurkitzen dituzte askotan oraindik ezagutu ez dituzten errealitateak. Orro egiten duten lehoiak edo lepo luze luzea duten jirafak deskubritzen dituzte haurrek ipuinen bidez.

2.-ZERTARAKO LAN HAU?

**HAUR LITERATURAN
AURREIRITZI SEXISTAK EGON
BADIRELA FROGATU DUGU LAN
HONEKIN.
ERREALITATE HAU EZAGUTARAZI,
SENTSIBILIZATU ETA BIDE BATEZ,
AURREIRITZI SEXISTA HAUEK
DESAGERTZEKO BIDEAK IPINTZEA
IZAN DA LANAREN XEDEA.**

- Lehenik, haurrei zuzendutako ipuin eta testuliburuetan genero ikuspegiari erreparatuta dauden eredu ez egokiak identifikatzeko tresna izan nahi du ikerketa lan honek. Irakasle edota gura-soentzat egunerokoan erabilgarriak izan ahal zaizkien zenbait adierazle agertuz.

- Bigarrenik, berdintasunean hezteko lanean lagungarri izan nahi duten ipuin eta liburuak gida batean bildu nahi izan dugu. Hezkidetza oinarri duten eta euskaraz idatziak diren ipuinen erakusleihen bat osatu nahi izan dugu. Lan hau egin ahal izateko Katakarak liburu-denda eta editorialaren laguntza izan dugu.

- Proposatutako ipuinen artean hamaika gai aurki daitezke: emakumeek historian egin duten ekarpena ikustarazteko ipuinak, maskulinitate berriak, genero indarkeriari aurre hartzeko proposamenak, homofobia-aren aurkakoak, heziketa afektibo sexuala sustatzeko materialak, auto-estimua lantzeko ipuinak, familia aniztasuna agertzeko bildumak...

- Liburuak multzo ezberdinetan banatu ditugu: lehen urratsak, aurre-irakurleak, irakurleak, jakintzak eta gazteak. Jakin badakigu liburu gehienak gomendatutako adinen arabera sailkatuak daudela, haatik, gure iritziz adinarekin baina gaitasunekin dago lotuta irakurketa eta beraz, gida honek erritmo ezberdin horiei egin nahi die leku.

- Eta azkenik, euskaraz ez dauden ezinbesteko ipuinak jaso ditugu. Gure herri txikia inguratzen duten bestelako kulturek aurre-rapauso itzelak eman dituzte haur literaturan genero ikuspegia txertatzeko bidean eta gure gidan dauden gaztelaniazko liburu horiek horren testigu dira. Gaztelera, ingelesez edo frantsesez hamaika aukera eder aurki daitezke. Gure haur literaturak ere generoaren bidea ibil dezan lan horiek euskaratzeko aldarria luzatu nahi dugu lan honekin. Premia nabaria da, orain borondatea da behar dena.



3- MARKO TEORIKOA

ZERGATIK TXERTATU BERDINTASUN POLITIKAK HEZKUNTZAN?

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikek hezkuntza esparrua arautzeko ahalegina egin dute azken hamarkadetan. Hezkidetzaren alde eta sexuen arabera estereotipoak eta rola alboratuko dituen hezkuntza baten aldeko araudi, gomendio, plan eta abar bultzatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Atal honetan berdintasunaren eta hezkuntzaren arloko oinarritzko araudia jaso da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

4/2005 2005eko Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, bere hirugarren titularen barruan, berdintasuna sustatzeko neurriak jasotzen ditu, tartean hezkuntzari lotutakoak.

Lege honen arabera, Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren arabera estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean.

Hala, hezkuntza-etapa guztietako jakintza-arlo eta jakintza-arlo guztien curriculum-diseinua eta garapena sustatzeaz gain, hezkidetzaren helburu hauek ezartzen ditu:

A) Emakumei eta gizoni esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabera aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

B) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.

C) Beharrezko ezagutzak sartzeko, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.

D) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.

E) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonen eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzaren ereduak ere.


Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzaren ereduak ikastearekin.

II. Hezkidetzaren plana euskal hezkuntza-sistemarentzat, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean (2019-2023)

Hezkidetzaren erronka handia da eskolarentzat, eta, horren ezarpena errazte aldera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak indarrean du euskal hezkuntza-sistemarako II. hezkidetzaren plana, berdintasunerako eta tratatu onerako bidean (2019-2023). Plan honen bidez, Euskal Hezkuntza Sistemari eta, zehazkiago, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako etapen bidez, hezkidetzaren eskolarako bidean urratsak ematen jarraitzeko aukera eman nahi zaio.

Hezkidetzaren ondorengo oinarrietan oinarritzen da plana:

1. Sexismoaren aurreko pentsamendu kritikoa.
2. Hezkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakintzaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzaren bizikidetzaren proiektuekin.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Ikastetxeko espazioak eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak osagarriak.
7. Hezkuntza afektiboa eta sexuala berdintasunean.
8. Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu eta kasu egitea.



4.-TESTUINGURUA: EGUZKITZA ESKOLA

Irungo Eguzkitza eskolako liburutegian egin dugu ikerketa. Haur Hezkuntzako bi urte eta Lehen Hezkuntzako seigarren maila arteko ikasleak biltzen ditu Irungo Larreaundi auzoan kokatutako eskolak.

Eguzkitza ikastetxea 2006-07 ikasturtean sortu zen Irunen eta 2-12 urteko ikasleei zuzendutako ikastetxe publikoa da. Jaiotza tasaren hazkundeak eragindako eskaerari erantzuna emateko sortu zen Eguskiza ikastetxea. Bi lerrokoa izanik, gradualki osatzen joan da Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntza osoa osatu arte.

D ereduko ikastetxe publikoa eta dohainekoa da. Eskolaren lurralde-esparrua zabala izan arren, asko dira auzotik bertatik jasotzen dituen ikasleak. Honek auzo eskola edo gertuko eskola baten izaera ematen dio.

Eskola integratzaile eta hezkidetzagilea da, banan-banako irakaskuntzan gauzatzen dena. Hau da, haurren ingurune soziokulturala kontutan hartuz, bere aurrezagutzak, nahiak, ahalmenak eta interesak ardatz hartzen dituena. Honek ahalbideratzen baitu ikasleen aniztasuna errespetatzea eta bultzatzea.

HEZKUNTZA HELBURUAK

1. D ereduko eskola izanda, helburua ikasleak euskaraz hezte da. Euskararen erabilera bultzatzea elkarren harremanetarako komunikazio tresna bilakatuz eskola giroan bai kanpoan.
2. Ikaslearen izaera globala kontuan hartuz, bere eguneroko lan eta elkarbizitzarako, autonomia sustatzea. Horretarako, bere garapenean funtsezko diren balore eta jarreraren prestakuntza integralean eta kritikarako gaitasunean heziz.
3. Ikaslearen aniztasunari eta hezkuntza premiari erantzun egokia ematea, prozesu indibidualak errespetatuz eta berez eskaintzen duten aberastasun iturria baloratu eta aprobetxatuz.
4. Hezkuntza Elkarteko partaide guztien elkarren arteko lana bultzatzea.

METODOLOGIAREN ARDATZ NAGUSIAK

Haurren izaera globala eta Oinarrizko Diseinu Kurrikularrean agertzen diren esperientzia eremuak (Nortasuna eta Autonomia, Ingurune Sozial, Fisiko eta Naturala, Komunikazioa eta Errepresentazioa), kontutan harturik metodologia, ikuspegi eraikitzailearen ildotik abiatzen da. Haurra eskolara behar, beldur eta nahi konkretu batzuekin iristen da, baina baita jakintza eta interes konkretu batzuekin ere. Giro afektibo eta esanguratsu batean murgildurik, guzti honi erantzuna ematen saiatu eta haurren garapena bultzatu nahi da. Azken batean lantzen den metodologia, haurrak berak, mundua eta errealitateari buruz duen ikuspegia zabaldu eta eraiki dezan laguntzen saiatzen da.

BERDINTASUN PLANA

Eguzkitza eskolan hezkidetzeta plana daukate, bertan 5 helburu nagusi dituzte eta urtero ekimenak egiten dituzte berdintasuna eragozten duten egoerak saihesteko eta hezkidetzeta bultzatzeko. Etengabeko ebaluazioa duen plana da.

Honako hauek dira Hezkidetzeta planaren helburuak:

1. Hezkuntza Komunitatean estereotipoak eta eskubide eta betebeharrak ezberdintasunak eragiten dituzten egoerak saihestea.
2. Ikastetxeko dokumentuak eta materiala aztertu ea generoari buruzko ikuspuntua kontuan hartzen den ikusteko.
3. Jolastokian egiten diren jokoak eta ekintzetan sexuen arteko interakzioa egotea eta jolastokiko espazioaren erabilera neska eta mutilen arteko aldea ez egotea.
4. Familien ordezkaritza eta partaidetza, emakumezko eta gizonezkoen arteko parekidetasuna bultzatzea.
5. Alardearen inguruan ikastetxeetan hausnarketa egitea Berritzeguneko Hezkidetzeta mintegiak proposatutako unitate didaktikoa medio.

ESKOLAKO DATUAK:

Bi lerro ditu Eguzkitza eskolak eta lau ziklotan banatzen dira ikasturteak:

Haur Hezkuntza
2 urteko 2 gela
3 urteko 2 gela
4 urteko 2 gela
5 urteko 2 gela
Lehen Hezkuntza 1go zikloa
1go mailo 2 gela
2. mailako 2 gela
Lehen Hezkuntza 2 zikloa
3. mailo 2 gela
4. mailako 2 gela
Lehen Hezkuntza 3. zikloa
5. mailako 2 gela
6. mailako 2 gela
Aniztasun funtzionala dutenen gela berezia

Guztira 21 gela daude.



LIBURUTEGIA



Espazioa

Eskola liburutegia espazio zabal eta argitsua da. Espazioak izaera balioanitz dauka eta prestakuntza bilerak eta bestelako egitasmoetarako erabiltzen da. Bertan bilerak, ikus-entzunezko emanaldiak, guraso eskolak, bideoak, antzerkiak ... egiten dira.

Jangela orduan eguraldi txarra baldin badago, haurrak bertan egon daitezke. Era berean, haurrak jolas garaian ere joan daitezke liburutegira eta bertan liburuak irakurriz edo aukeratuz egon.

Mugi daitezkeen apalak dituzte, bereziki Haur Hezkuntzako ikasleei begira. Eta apal finkoetan jasoak daude gainontzeko ikasleentzako eta irakasleentzako ipuin eta liburuak.

Liburutegi arduradunarentzako mahai eta ordenagailu txokoa ere badago. Baita pantaila handi bat ere ikus-entzunezko emanaldiak eskaini ahal izateko.

Mahaiak eta aulkiak ere ditu liburutegiak, ikasleak bertan lasai irakurtzen egon daitezten. Irakasleak txandaka antolatzen dira ikasturte hasieran hurrekin liburutegira joan eta bertan egoteko.

Euskal mitologiari lotutako irudi ederrez dekoratua dago liburutegia.

Antolaketa

Eskolako irakasle batek du liburutegiaren ardura, haatik, ez da bere ardura bakarra. Izan ere, jangelako arduraduna da eta bere lanaldi ia gehiena egiteko horretara du bideratua. Jangelaren ardura mardula da, bereziki Covid-19ak eragindako krisi sanitarioaren ondotik.

Lanaldiaren zati oso mugatua du liburutegia antolatzeko, soilik bi eguerdi ditu liburutegian bertan fisikoki egoteko. Dedicazio maila horrekin oso zaila da liburutegia gaurkotua eta erabat antolatua edukitzea.

Hezkuntzak gaur egun ez du liburutegi arduradunaren papera bere osotasunean kontenplatu eta honek arduradun hauen jarduna mugatu eta liburutegiaren beraren kalitatea zalantzan jartzen du. Aurreko ikasturtean **Abies programa** antolatzeari eskaini zion denbora, baina COVID 19aren krisia dela eta eten egin behar izan zuten jarduna.

Mailegu zerbitzua ere badu liburutegiak, baina gutxi erabiltzen da. Eskolako 10 haur inguruk erabiltzen dute gutxi gora behera mailegu zerbitzua eta normalean astero berritzen dute.



Haur hezkuntzako ikasleek, ordea, astero liburu bat eramaten dute etxera, baina eskolako dinamikaren baitan kokatutako ekintza da.

Ikasle taldeak ere modu antolatuan joaten dira liburutegira, izan ere, ikasturte hasieran irakasleen artean antolatzen dute egutegia. Haurrak liburutegian egon eta irakasleen laguntzarekin liburuak aukeratzen dituzte, bertan ikusi edota maileguan eramateko. Liburutegira egiten den txango horietan, irakasleen esku geratzen da liburuak bere lekuan txukun uztea.

Bestetik ikasturte ezberdinetan, Guraso elkarteak antolatuta ipuin kontalari lanetan aritzen dira gurasoak jangela garaian.



Liburuen jatorria

Zikloen lehen ikasturtean familia bakoitzak liburu bat erosi eta eskolako liburutegira eraman behar du. Irakasleek gomendio batzuk ematen dizkiete liburuak hautatzeko orduan, oraingoz baina, ez dago genero berdintasunaren inguruko irizpiderik aholku horietan.

Bestetik, zenbaitetan liburu dohaintzak ere jasotzen dituzte, familia, elkarte edo beste liburutegietatik.


Era berean, ikastetxeak ere liburutegia berritua izateko ahalegina eginez, inbertsioak egiten ditu noizean behin.

Argitaletxeek urteko berrikuntzak jasotzen dituen aldizkaria helarazten diote zuzendaritzari, eta askotan gida hauen baitan egiten da liburutegia hornitzeko aukeraketa.



Hizkuntza

Liburutegian zerrendatuak dauden liburuen artean 72,40% euskaraz dira. 27,60% gaztelera.



Liburuen antolaketa eta kudeaketa

Liburutegiak kudeatzeko ABIES 2.0 programa erabiltzen da, programa hau Eusko Jaurlaritzak jartzen du. Abies programarekin kode-barra jartzen zaio liburu bakoitzari, baina ipuin eta liburuak gaika antolatzeko arazoak sortzen ditu programak. Antolatu eta katalogatzerako orduan, liburu berriak izan dute lehentasuna, izan ere, denera iristeko zailtasunak izanik, hauek lehenestea erabaki zuten. Gaur egun oraindik, ez daude liburutegian dauden liburu guztiak katalogatuak.

Liburuak sailkatzerako orduan ondorengo kodigoak ipintzen dira:

HH *

LH 1, 6-7-8 urte **

LH 2, 9 urtetik aurrera ***

Liburutegiko liburu guztiak baina, ez daude liburutegian bertan, izan ere, ziklo batzuetan ikasgelan izaten dituzte, gelan horiekin lan egiteko.

Apalen antolaketa

Haur hezkuntzako liburu gehienak bildumak antolatuak daude. Ez gaika, ez adinka edota irakurtzeko gaitasunen arabera.

Lehen hezkuntzakoak, aldiz, zikloka antolatuak daude eta ziklo bakoitzaren barruan bildumak.

Letra xehez eta larriz dauden liburuak banatuak dituzte, irakurtzen hasi berri direnentzat zuzendua.

Arazo nagusiak

Eguzkitza eskolako liburutegiaren azterketa egiterako orduan zuzendaritzaren, liburutegi arduradunaren eta irakasle kolektiboaren iritzia eta esperientzia biltzen saiatu gara, banakako elkarrizketa ala online bidezko inkestekin. Hona hemen atera ditugun zenbait ondorio:

- Liburutegia antolatzeko eta kudeatzeko denbora falta larria. Koordinatzaileak beste jardun bat izateak eta liburutegiari eskaini ahal dizkion ordu kopuru urriak oso zaila egiten du liburutegia antolatu izatea. Jardun osoko lana izan beharko luke liburutegi arduradunak, ahal dela, ikasturtero; baina gainontzean, liburutegia eguneratua izateko ahalegin berezitu bat egin beharko zen urteren batean.
- ABIES Programarekin lan egitean arazo ezberdinak sortzen dira eta teknikoki hauek konpontzeko erraztasun gutxi jartzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Lan hau taxuz egiteko prestakuntzak eta berrikuntzak ezinbestekoak dira.
- Liburutegia gaurkotua eta txukun izateko ikas komunitate osoaren inplikazioaren beharra nabarmena da. Haatik, hori ez da ematen.
 - Batetik, irakasleek ez dute nahi adina denbora liburutegiari ekarpena egin eta proposamenak egiteko.
 - Bestetik, batzuk inplikazio eskasa erakusten dute. Oso gutxi dira liburuak zeuden lekuan txukun uzten dutenak, maizegi liburutegi arduradunaren mahaian uzten dituzte erabili ostean, haren lana biderkatuz.

5.- METODOLOGIA [ZER NOLAKOA IZAN DA IKERKETA]


IRAKASLEGOAREN ARTEAN ZABALDUTAKO INKESTA

Ikastetxeko zuzendaritza taldea eta irakasleen iritzia biltzeko, inkesta bat jarri dugu martxan. 18 irakasleren erantzunak jaso ditugu eta honakoak ziren egin-dako galdera eta jasotako erantzunak:

Zeren baitan aukeratzen dituzu ikasgelan erabiliko dituzun liburuak?
18 erantzun



Liburuaren protagonisten generoa kontutan hartzen duzu aukeratzeko garaian?
18 erantzun




Ikasleekin liburuetan ageri diren rolen inguruko hausnarketa egin izan duzu?
18 erantzun



Ikasleek euren kaxa liburuak aukeratzeko orduan genero banaketa ikusten duzu?
18 erantzun



Eskolako liburutegiak rol ezberdinak lantzeko aukera eskaintzen duela uste duzu?
18 erantzun



Inkestatik ateratako ondorioak

Liburuak hautatzerako orduan, ikasleek interesak hartzen dituzte aintzat irakasleek. Hala adierazi dute bederen %80ak. Ikasturtean zehar landu nahi diren gaiak ere zer esana dute zein liburu aukeratzeko orduan, baina maila askoz txikiagoan, %11an.

Bestetik, pertsonaia protagonisten generoa kontutan hartzen den beste faktore bat dela dio irakasleek %67ak. Inkesta erantzun duten irakasleentzat beraz, protagonisten generoa bada hausnarketarako gakoa. Kopuru berdinak gainera, hausnarketa hori ikasleekin partekatu izan duela aitortzen du.

Ikasleek euren kaxa aukeratzen dituzten ipuin eta liburuetan genero banaketa ikusten dute irakasleek ia % 40ak. Haien aburuz, gaiaren arabera hautatzen dute ikasleek liburua baina pertsonaia protagonistetara eragina du horrek. Hala eta guztiz ere, ia %55ak ez du ezberdintasun hori ikusten edo ez du horren inguruan hausnarketarik egin.

Eskolako liburutegian rol ezberdinak lantzeko aukera ba ote dagoen galdetuta, irakasleek ia erdiak (%44,4k) horren inguruan hausnarketarik ez duela egin onartzen du. %28ak ordea, bertan dauden aukerak egokiak direla deritzo.

EGUZKITZA ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN IKERKETA

Eguzkitza eskolako zuzendaritza lan taldearen eskutik egin dugu liburutegia ikertzeko ariketa. Liburutegian katalogatuak dauden 4.000 liburuetatik 400 aztertu ditugu. Haatik, bildumak kontutan harturik, gure ikerketa 973 liburu barnebildu ditu. Guztira, beraz, liburutegiaren % 24,325 aztertu dugu.



Zehazki, honako hauek dira ikerketa egiteko erabili ditugun ADIERAZLEAK:

IDAZLEAK

PERTSONAIA NAGUSIA

- Pertsonaia protagonistaren sexua
- Protagonismo-mota banatua
- Talde protagonismoa
- Animaliak protagonista
- Emakumeen ekarpena historian

IKUSPEGI ANDOZENTRIKOA/ESTEREOTIPOAK

- Azalen kolorea
- Pertsonaien ekintzak
- Deskribapenak
- Ilustrazioak
- Testuak/ hizkuntza
- Sorginen trataera

ZAINTZA

ESPAZIOA

EMAKUMEA BESTE EGITEKOTAN/LAN EKINTZA

FAMILIA EGOERA

MAITASUN ERROMANTIKOA ETA INDARKERIA

JATORRI ANIZTASUNA

6. IKERKETAREN EMAITZAK

Ipuinen balioa sozializazio prozesuan

Sozializazioa edo gizarteratze prozesua norbanakoa bizi den gizartean sartu eta integratzeko ariketa da. Prozesu honetan pertsonak bere inguruan indarrean dau- den balio eta jarrerak hartu eta bere pertsonalitatean integratzen doaz, modu naturalean inguratzen duen kultura berezkotzat hartuz.

Jaiotzearekin batera abiatzen den prozesu hau jendartera egokitzeko ariketa da eta faktore askok hartzen dute parte ibilbide honetan. Gurasoek, lagunek, esko- lak, telebistak, erlijioak ... Horiek guztiek bere biziko garrantzia dute pertsonaren osaketan.

Gure jendartean baina, sozializazio prozesua sexuaren arabera da. Jaiotzen garen unetik ez dira berdinak neskek ala mutilek jasotzen dituzten mezuak, ez dira berdinak haiengatik espero diren jarrera eta erabakiak; eta beraz ez da berdina, euren inguruetatik espero dena. Honi guztiari genero sozializazioa deitzen zaio.

Genero sozializazioa gure egunerakoan oso presente dago, umeen jantzietatik hasi eta aukeratzen zaizkien jolasetaraino. Logelaren koloretik hasi eta kontatzen zai- zkien ipuinetaraino.

Eta hortxe dago gakoa. Hasteko, ez zaizkie ipuin berdinak kontatzen neskei eta mutilei eta beraz, sormenaren erdia debekatzen zaio batari zein besteari. Eta aukeratzen diren ipuin horietan ere, ez diegu aukera berdintasuna eskaintzen irakurleari. Amaren sabelean egokitutako sexuaren arabera mezuak, jarrerak eta egitasmoak eskaintzen dizkiegu lerro eta irudi artean, batzuei eta besteei.

Etorkizuneko belaunaldiak euren bidea libreki eta modu askean aukeratzea eta ibiltzea nahi badugu behintzat, ezin diegu batzuei eta besteei, munduaren erdia debekatu. Ateak zabaltzeko eta ume eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuetan, eredu posible guztien dibertsitatea jaso eta sozialki bidezkoak direla erakutsi be- har da. Soilik horrela lortuko dugu jendarte askeago bat.

Hezikidetzaren garrantzia eta sexismoa haur literaturan

Sexu banaketaren amildegia bizitzako esparru orotan aurki daiteke; modu age- rian batzuetan eta ikusgarri egiten ez zaigun modu sotilagoan besteetan. Sexis- moa deritza horri eta gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak eta men- dekotasunak betikotzeko tresna da. Sexismoaren erruz, emakumeek ez dituzte gizonen aukera berdintasuna.

Androzentrismoa gizona gizartearen eta kulturen zentro edo erreferentziatzat hartzen duen ikuskera da. Hezikidetzan hezte ordea, erreferentzia eraldatu eta emakumeen ikuskerari ere leku egitea da. Neskentzat edo mutilentzat egokiak di- ren edo ez diren eredu binariotik, emakume zein gizonen kulturetatik eratorritako balio positiboak ikusarazi eta bi sexuei begira sustatzea ari gara hezikidetzaz.

Berdintasunean hezteko ezinbestekoa da neskak zein mutilak, gizon zein emaku- meak pareko herritar gisa irudikatzea. Eta lan horretan berebiziko pisua dute ipuin eta liburuek.

Tamalez, sexismoa ere haur eta gazte literaturan txertatua dago. Bizitzan beza- la, modu agerian batzuetan eta ikusgarri egiten ez zaigun modu sotilagoan bes- teetan. Pertsonaiak aukeratzeko orduan, hauen ezaugarriak ezartzerako orduan, testuinguruak eta ilustrazioak erabakitze orduan, pertsonaien arteko elkarri- zketetan ... esparru anitzetan aurki daiteke eta horregatik berebiziko garrantzia du sexismoa detektatzeko gaitasuna edukitzea.

Detekzio lan honetan lagungarri izan nahi du lan honek eta ipuinek genero ikuspe- gia modu egokian lantzen dutela frogatzeko zenbait jarraibide eskaini nahi dizki- zuegu.



IDAZLEAK

Haur eta nerabeen esku jartzen ditugun liburuen egileengan ipini dugu arreta. Egun, garbi dago euskal emakume idazle ugari daudela eta haien presentzia nabarmen handitu dela. Alabaina, aspaldi gizon idazleak ziren jaun eta jabe euskal literaturan eta beraz, liburutegiak berritzeko ahalegina egiten ez bada eta berritze horretan emakumezko idazleengan atentzioa ipini eta aukera bat ematen ez badiegu arrakala hori iraunarazteko arriskuan gara.

Errealitate berdinarekin topo egiten dugu itzulpengintzaz ari garenean. Esku artean izaten ditugun ipuin eta liburu asko gure hizkuntzara itzuliak izan dira. Zein liburu itzuli hautatzerako orduan ere, emakume idazleek egindako ekarpenak aintzat hartu behar dira, gainontzean, aipatutako arrakala bere horretan betikotu daiteke.

Garrantzitsua da ume eta gazteei eskaintzen dizkiegun liburuetan emakume idazleak agertzea. Emakumeak ere idazleak direla frogatzen baitu horrek eta beraz, neskatoak euren etorkizuna hautatzerako orduan aukera profesional hori aukera bideragarria dela ondorioztatu dezake horrela.

Eguzkitza eskolako liburutegian dauden liburuen %34,50, emakumeek idatzi dituzte. Beraz, liburutegiaren bi heren gizon idazleen lanak dira.



PERTSONAIA PROTAGONISTA

Irakurtzen ditugun ipuinetan edo ikusten ditugun filmetan gure burua irudikatu eta imajinatzen dugu. Ipuinek berebiziko garrantzia dute irudimena lantzeko orduan, eta beraz, askotan pertsonai protagonistaren eskutik hartuta ezagutzen ditugu mundu berriak, jokatzeko modu berriak, perspektiba berriak, azken finean. Liburu eta ipuinek garrantzi berezia dute sozializazio prozesuan. Izan ere, modu dibertigarrian planteatutako edo jolasarekin uztartuak datozenean ikasketa prozesuak sakonagoak izan ohi dira.

Umeak liburuetan aurkitzen ditugun pertsonaiekin identifikatzen dira eta entzun eta irakurtzen dituzten istorioen protagonista bihurtzen dira maila batean. Pertsonaiari gertatzen zaion guztia bere barruan bizi du umeak, eta pertsonaiak hartutako erabakien inguruan hausnartuz, gatazken aurrean nola jokatu ikasten joango da umea.

Aldi berean eta tamalez, oraindik ere sozializazio prozesua generoari estuki lotuta dagoenez, umeek haiengatik zer espero den ikasten dute, baita zer ez den espero. Egoera ezberdinen aurrean zer esan edo egin behar duten, zein jarrera den egoki edo desegoki ... Finean, euren sexu identitatea ikasten dute.

Pertsonaia protagonistaren sexua

Eguzkitza eskolako liburutegian diren liburuetan emakume zein gizonen presentzia eta protagonismoa aztertu dugu. Eta datuek argi erakusten dute pertsonaia maskulinoen kopurua femeninoena baino handiagoa dela.

Zehazki aztertutako ipuinen %62-k du mutil edo gizon bat protagonista. Eta soilik %29,3 du emakume edo neska bat protagonista.

Haur eta gazteei zuzendutako ipuinetan sarri agertzen da **PROTAGONISMO-MOTA BANATUA**. Aztertutako ipuinen %7,5-ean bi dira pertsonaia protagonista eta halakoetan, bikote parekide batek protagonismoa partekatzen badu ere, ez da berdina bati zein besteari ematen zaion garrantzia.



Talde protagonismoa

Bilduma askotan maiz ageri da taldearen kontzeptua. Halakoetan baina, lidergo maskulinoa izaten da ardatz, nahiz eta liburuan zehar taldeko kide diren lagunak abenturetan lagundu. Banaketa argia dago protagonista eta taldeko bigarren mailako pertsonaien artean.

Mutil talde ugari aurki daitezke haur eta gazte literaturan eta mutil talde horietan maiz aurki daiteke neska bat. Gehienetan baina, neska bakarra izaten da. "Los cinco" edo "Gol" bildumak dira horren lekuko.



Esanguratsua da baina, emakumeak protagonista diren ipuin askotan, talde gisa direla protagonista. Mutil protagonistekin gertatzen ez den bezala, emakumeek protagonismoa taldean partekatzen dute, neska talde gisa. Halakoetan denak dira pertsonaia protagonista, ez dago haien arteko hierarkiarik.



Adibiderik esanguratsuena Geronimo Stilton bilduma ezaguna da. Geronimok ere lagun taldea duen arren, eta abentura gehienak taldearekin bizi baditu ere, protagonista Geronimo da, bere izena ageri da azalean eta ilustrazioetan bera da jaun eta jabe. Haatik, ez da berdina gertatzen Tea Stiltonen bilduman. Teak klub edo talde bat du eta taldea bera da protagonista.



Animaliak protagonista

Aipatu beharra dago, Haur hezkuntzako umeei zuzendutako ipuin askotan protagonistak animaliak direla. Euskaraz ez bada haren sexua argi erakusten, gaztelerako bertsiora jotzen badugu argi ageri da animalia protagonista ia gehienak arrak direla.



Emakumeen ekarpena historian

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duenez, Hezkuntzak emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa integratu behar du, ematen diren edukiak berrikusiz eta, hala badagokio, zuzenduz.

Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa jasotzen duten ipuin eta liburuak egon baldin badaude ere, kopuruan askoz urriagoak dira.



Adibide gisa, Vascos con Historia bilduma dugu. Eguzkitzako liburutegian dauden ha maika aletatik bakarrak jasotzen du emakume baten historia, Maria de Maeztuena, hain zuzen ere.

Gabairen kasua ere aipagarria da. Komiki bilduma honetan Gabai izeneko mutila da protagonista nagusia, eta Kurtis izeneko laguna du bidaide, hau ere mutila, noski. Komiki hauen bidez Euskal Herriko historiaren berri eman nahi dute, Erromatarren garaitik hasi eta ia gaur eguneraino. Iruditegia eraikitzerakoan baina, gizonezkoen protagonismoa askoz handiagoa da emakumezkoena baino, emakumeak ez dira apenas ageri orrialde askotan eta baldin badaude, jarrera pasiboan agertzen dira gehienetan. Eguzkitzako liburutegian bilduma osoa topa dezakegu.



IKUSPEGI ANDOZENTRIKOA/ ESTEREOTIPOAK

Tamalez, gizarteko beste esparru ezberdinetan bezala, estereotipoak eta rolak oso presente daude haur eta gazte literaturan. Berdintasunaren aurkako balio eta jarrerak sustatzen dituzten estereotipo eta rol hauek, irakurle ditugun umeen eredu bihurtuko dira eta etorkizunean, gizon eta emakume direnean, berdintasunaren aurkako eredueta oinarrituko dituzte euren harremanak, diskriminazioaren katea ezin hautsiz.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak sexismoaren aurreko pentsamendu kritikoa sustatzea galdegiten dio Hezkuntzari. Sexuaren arabera aurreiritziak, estereotipoak eta rolak ezabatuz eta jokabide-eredu soziokulturalen arabera eraiki eta emakumeei eta gizonei esleitutako jarrerak baztertzearen aldeko hautua egiten du legeak, ikasle eta irakasle orori garapen pertsonal integralerako aukerak bermatzeko.

Sexismoaren kontra egiteko, estereotipoen aurka egin behar da eta ipuinetan maizegi ageri dira eredu estereotipatuak.

Azalen kolorea

Deigarria den beste elementu bat, azalen kolorea da. Adinean aurrera joan ahala, baztertu egiten dira Haur Hezkuntzarako pentsatuak diren azal koloretsu eta deigarriak. Horien ordez, baina, azal binarioak erabiltzen dira eta hemen ere arrosa, edo tonalitate antzekoak, neskei zuzendutako ipuinetan eta urdinak, aldiz, mutilei zuzendutakotakoetan.



Pertsonaien ekintzak

Pertsonaien ekintzetan arreta jarri gero, mutik protagonistek mugimendu handia dute, egoera ezberdinei aurre hartuz. Ipuin klasikoetan mutikak izan ohi dira mundua eta emakumeak salbatzen dituztenak. Neskak ordea, egoera lasaia gero ageri dira, askotan itxaroten, egoerei aurre hartu gabe. Autonomia eta erabakitze gaitasun eza sumatu daiteke askotan.


Deskribapenak

Deskripzioetan ere aldeak nabarmenak dira. Neskatoak txukunak, garbiak eta antolatuak ageri dira gehienetan eta emakumeen edertasunari neurritz kanpoko garrantzia eman ohi zaio. Mutikak, ordea, hauek direnean pertsonaia protagonista, alproja, desordenatu eta zikin gisa izan ohi dira deskribatuak.



Estereotipoak oso argi ikusten dira lehen aipatutako Geronimo Stilton eta Tea Stilton ipuin bildumetan. Liburuez harago doazen fenomenoak dira biak. Pertsonaia hauek web orriak dituzte eta internet bidez gazteei zuzendutako baliabideak eskaintzen dituzte.


Web orri hauetan aurki daitezkeen genero ezberdintasuna izugarria da eta neskei zuzendutako edukiak erabat estereotipatuak daude, edertasunaren inguruko kezka eta aholkuak eskaintzeko atalak dituztelarik. Ez da halakorik ageri Geronimo Stiltonen web orrian. Erabat arrosa da gainera Tearen klubeko web orria.



Ilustrazioak

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako legeak hezkuntzan erabiltzen diren baliabidetan hizkuntza eta irudi ez sexistak dituzten materialen alde egitea gomendatzen du eta hortaz, aholku hau oso presente izan behar dugu ilustrazioak eta hizkuntza aztertzerako orduan.

Ilustrazioetan maiz aurkitzen ditugu eredu estereotipatuak. Koloreetatik hasi eta pertsonaien janzkeraraino ...



Testuak/ Hizkuntza

Testuan ere arreta jarri dugu eta zenbait adibide esanguratsu topatu ditugu:

"El misterio de los árbitros dormidos" Roberto Santiagoren liburuan:

"...Corre tan rápido que te olvidas de que es chica y que la asociación de padres nos oblige a meterla en el equipo a la fuerza porque decían que tenía que haber más chicas. Es bastante buena, le gusta mucho mandar...."

LHko ikasleei zuzendutako Bat Pat banpiroaren bilduman, sei alez osatutakoa, halako esaldiak topatu ditugu:

"George y Elisabeth son los padres de Martin, Leo y Rebecca. Elisabeth es una magnífica cocinera y una amante de la naturaleza, mientras que a George le encanta definirse como un detective de sillón: el misterio es su pasión, ¡sobre todo si se encuentra en los libros o en una buena película!"

"Rebecca tiene 8 años, pero no es como las otras chicas de su edad: la aventura y las situaciones de miedo son su pasión"

Sorginen trataera

Bestetik, atal berezitu bat beharko lukete sorginek. Askok eta askok dira sorgina paperean irudikatzen diren emakumeak eta noski, itsusi eta zatarrak izateaz gainera, gaizkiaren eredu izan ohi dira. Gogora ekarri behar da, sorgina etiketa feminitatearen araukin apurtzen zuten emakumeak estigmatizatzeke erabili zela eta tamalez, haur eta gazte literaturan ikusten dugunez, oraindik ere indarrean dagoen estigma dela.

Esanguratsua da ere, esparru profesional anitzetan ageri ez diren emakumeak, fikziozko lanbide honetan agertzea, eta hainbeste alditan agertzea gainera.



ZAINTZA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agintzen duenez, etxeko lanarekin eta pertsonak zaintzearekin zerikusia duten egungo eta etorkizuneko behar eta erantzukizunez arduratzeko behar diren ezagutzak barneratzea ere bada hezkuntzaren helburuetako bat.

Hortaz, batetik, ipuin eta liburuek zaintzak merezi duen garrantzia eman beharko liokete. Hau da, bizitza guztiak bizigarri izan daitezen ezinbesteko elementua behar du izan zaintzak. Pertsonak jaiotzen garen momentutik hiltzen gareneraino elkar-mendekoak gara, eta ondorioz, gure bizitza osoan zehar zaintza lanak eman eta jasotzea ezinbestekoa da. Errealitate hau belaunaldi berriei ikusarazi behar zaie eta egiteko horretan ipuinak bitarteko apartak dira.

Haatik, ipuin eta liburuetan zaintzak ez du behar duen zentralitatea. Oso gutxitan ikusarazten da zaintzaren garrantzia. Aztertu ditugun liburuetatik, % 34,1-an bakarrik ikusten da zaintza.

Aipatu beharra dago gainera, zaintzaren praktikaren agerpena urrituz doala irakurle perfila adinean gora doan bitartean. Hau da, haur hezkuntzako ikasleei zuzendutako ipuinetan maizago agertzen da zaintza. Baina beti, umea zaindutako kolektibo moduan ageri da. Protagonista txikia amaren, aitaren, amonaren edo andereinoaren eskutik izan ohi da zaindua.

Irakurlea adinean gora doan heinean, zaintzaren praktika mugatuz doa, izan ere, adinean gora doan umea autonomoago agertzen da. Haatik, haur eta gazteak ez dira apenas zaintzaile paperean kokatzen eta beraz, zaila dute euren burua praktika horretan irudikatzea.

Bestetik, zaintza eta etxeko lanak emakumeen gain jarraitzen dute maila handi batean eta liburuen bidez zabaltzen den iruditegian horrela mantentzen da. Aztertu ditugun 400 liburuetatik, %95etan emakumea, gehien gehienetan ama ala amona, ageri da zaintza lanetan.





ESPAZIOA

Zaintza lanek eragin zuzena dute espazioan. Protagonista eta pertsonaia maskulinoak agertoki oso bestelakotan ikusten ditugun bitartean, pertsonaia hauek emakumeak direnean eta zaintza lanei lotuta ageri direnean, gehienetan espazio pribatuaren ikusten ditugu.

Pertsonaia maskulinoek, berdin haurrek zein nagusiek, pertsonaia femeninoek baino espazio gehiago dute lan edo jolas egiteko. Leku edo agertoki gehiago izateaz gain, kualitatiboki ere ezberdinak dira hauek. Gizonak ageri diren espazioak, zabalago, irekiagoak eta sozialagoak dira; emakumeak agertzen diren agertokiak, oster, txikiak, her-
tsiak eta familia inguruarekin zerikusi dutenak izan ohi dira.

Publiko eta pribatuaren arteko dikotomia beraz, agerikoa da ere ipuin eta liburuetan.



EMAKUMEA BESTE EGITEKOTAN/ LAN EKINTZA


Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera, autonomia pertsonalaren eta independentzia ekonomikoaren ereduak eskaini behar ditu hezkuntzak. Eta bide horretan, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzarik gabe aukeratzearen alde egin dadin exijitzen du.

Arestian aipatu bezala, ipuin eta liburuek berebiziko garrantzia dute iruditegia sortzeko orduan, irakurleak maiz irudikatzen baitu bere burua pertsonaia protagonistaren eskutik.

Hautzaroon zehar osatzen goazen iruditegiak eragina du etorkizunean zer izan nahi dugun irudikatzean. Izan ere, nekez izango da neska bat astronauta inoiz emakume astronauta baten berririk izan ez duenean. Eta noski, honek guztiak gure aukera akademikoa baldintzatzen du, asko gainera.

Haur eta gazteei zuzendutako ipuinetan, emakumeei lan-ekintza mugatuagoa eskaintzen zaie, hala kopuruari dagokionez nola lanbide-motei dagokienez.

Batetik, asko eta asko dira ipuinetan ama ala amona paperean soil soilik ageri diren emakumeak. Hau da, bestelako lan ordaindurik egiten ez duten pertsona gisa ageri dira askotan emakumeak.



Datuei erreparatuz gero, aztertutako ipuinen %13-an ageri da emakume zaintzan ez den bestelako paper batean.

Eta salbuespen gisa, lan egiten agertu direnean gehientsuenetan irakasle edo dendari lanetan ageri dira bakarrik. Hortaz, emakumeak ez dira langile moduan islatzen eta hala agertzen direnean oso profesio feminizatuetan ageri dira batik bat.




Gizonezko pertsonaiak aldiz, oso lanbide ezberdinetan ikusi ditugu. Artzain lanean, banketxe zuzendari, tren gidari, astronauta, alkate...

Gainera, tamalez, adinean gora doazen irakurleei zuzendutako liburuetan oraindik agerikoagoa da bereizkeria hau, liburu hauetan ekintza femeninoen kopurua txikiagoa delako oraindik. Hau benetan arriskutsua deritzogu, izan ere, adinean gora doazen heinean, geroz eta gertuago dute heldutan zer izan nahi duten erabakitze eta bide horretan ikasketak erabakitze hautua. Garrantzitsua da adin horietan emakumeak edozein profesio eta lanbidetan aritu ahal dutela nabarmentzea eta beraz, zentzu honetan iruditegi zabal bat eraikitzea.

FAMILIA EGOERA

Familia eredu tradizionala gailentzen da ikertutako liburuetan. Ama, aita eta seme-alabak osatzen duten familia nuklearra. Zehazki, familia eredua agertzen den aztertutako liburuen %95an erakusten den eredua familia tradizionala da.



Ikertutako ipuinetan aiton amonek garrantzia dute eta maiz agertzen dira, baina gutxi dira bi ama edo bi aitaz osatutako familiak agertzen dituzten ipuinak. Ama edo aita bakarra ere aurkitzea zaila da.

Amaordeekiko gorrotoa ere maiz ageri da ipuinetan. Edurnezuri edo Errauskiñe moduko ipuin klasikoetan agerikoa den ezinikusia mantentzen da gaur egun ere eta, amaorde gehienak emakume gaizto modu erakusten dituzte.

Familia egoera anitzak jasotzen dituzten ipuinak baldin badaude, gaia modu zehatzean jorratzeko pentsatuak eta diseinatuak daude. Hau da, horixe da ipuinaren gaia. Adibidez, "Mila bi etxeetan bizi da".



MAITASUN ERROMANTIKOA ETA INDARKERIA

Maitasun erromantikoak atal berezitu bat behar du. Printze urdina noizbait aurkitu eta gerora harekin bizimodu zoriontsua lortuko dutela amestera animatzen ditugu neskatoak oraindik ere ipuin eta liburuen bidez.

Munduaren aurka borrokatu den printze urdinaren mitoa elikatzen jarraitzen dugu, halako maskulinate ereduak iraunaraziz eta horiek desiragarri eginez. Mutilak borrokalaria behar du izan, ausarta, nekazina, boteretsua, babesik behar ez eta aldiz, ondoan dituenak babestu behar dituen... Halakoak izan behar dutela ematen diegu aditzera mutil irakurleei.

Era honetako ipuin eta istorioak alabaina, neskatoei zuzenduak izaten dira batik bat eta hortaz, positibotzat jotzen diren balio horiekin eraikitzen doaz etorkizuneko bidelagunen irudi idealizatuak. Norberaren iruditegian sortutako irudi idealizatu hauek, harreman sano eta orekatuak izatea oztopatzen dute maiz, etorkizuneko harremanak kolokan jarritz.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea berdintasunean oinarritutako hezkuntza afektibo eta sexuala irakastearen alde ageri da eta halako kontakizunek ez dute ekarpen gehiegi egiten bide honetan. Beraz, maitasun erromantikoaren mitoa berrikusi eta harreman eredu berdintzaile, berri eta anitzak eskaini behar ditugu ipuin eta liburuen bidez.

Maitasun erromantikoaren mitoak dakartzan arriskuak handiak dira. Neskak maitasun honen izenean amore ematera animatzen ditugu maiz, zenbait jarrera desegoki onartuz eta jasatera gonbidatuz. Jeloskortasuna amodioaren seinale gisa identifikatzea edota bikote kidearen gaineko kontrola onartzeaz ari gara, adibidez; baina baita indarkeria matxista gogorragoaz ere.




Halako kontakizunetan gainera, emakumeak konkistarako esparru direla esaten dugu oharkabean eta tamalez, emakumearen gorputza guda zelai gisa kokatzen duen haur eta gazte literaturak mesede argia egiten dio indarkeria matxistari.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak alabaina, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eginkizuna ezartzen dio Hezkuntzari, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera-berdintasunean oinarritutako bizikidetza-ereduak irakastera gonbidatuz.

JATORRI ANIZTASUNA

Arrazializatutako pertsonaia zein beste kulturetatik datozen protagonisten presentzia oso txikia da. Are gehiago lehen mailako protagonistei erreparatuz gero. Guk aztertutako liburuen % 4,4an ageri da bakarrik eredu hegemonikoa ez den pertsonaien bat. Arrazializazioa eta kultura ezberdinak azaltzen dituzten egoerak beraz, oso, oso mugatuak dira.



Familia egoera anitzekin gertatzen den bezala, aniztasuna lantzen duten liburu zehatzak egon badaude. Hauetan, baina, aniztasuna da gai nagusia, kultura aniztasuna ez da normaltasunean kokatzen den testuinguru gisa agertzen.



7. ONDORIOAK

Berdintasunean, autonomian, dibertsitatean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako hezkuntza sustatzeko eta noski, balio horien gainera hezkuntza euskaraz sustatu ahal izateko, ezinbestekoa da genero ikuspegia txertatzeko ahaleginak egiten jarraitzea. Eta bide horretan, gazte eta haur literaturan arreta jartzea ezinbestekoa da. Ikerketak argi erakutsi du, berdintasunaren helmugarantz geratzen zaigun bidea luzea dela oraindik.

Eguzkitzako eskolako liburutegian egindako ikerketa eta bertatik ateratako emaitzak, bestelako eskoletan aurki dezakegun errealitatearen ispilu izan daitekeela uste dugu. Are gehiago, bi hamarkadara iristen ez den eskola izanik eta indarren duen hezkuntza proiektua aintzat hartuz gero, liburutegia hornitzeko orduan genero ikuspegia kontutan hartu zutelakoan gaude. Beraz, eskola zaharragoetan aurki daitekeen errealitatea are larriagoa izan daitekeenaren susmoa dugu.

Era berean, Eguzkitzako eskolako liburutegiaren errealitatea, euskal liburuen ekoizpenaren eta itzulpen-gintzaren adierazle ere badela uste dugu.

Eguzkitza eskolak hezkidetza plana indarrean izanik, berdintasunaren ildoaren hezkuntza eremuan integratua dutela nabarmendu behar da. Eten-gabeko ebaluazioa duen plana da eta urtero egiten dituzte ekimenak berdintasuna eragozten duten egoerak saihestu eta hezkidetza sustatzeko xedez. Hezkidetzaren bidean gainera, ikas komunitate osoaren inplikazioa irmoa da eta handia da eskola honen parte hartzea genero berdintasuna sustatzeko ariketetan. Indarrean duten Hezkidetza planaren bigarren helburua honakoa da: Ikastetxeko dokumentuak eta materiala aztertu ea generoari buruzko ikuspuntua kontuan hartzen den ikusteko.



Hain justu, liburutegiak eta bertan dauden baliabideak curriculumean duen garrantzia kontutan harturik, hezkidetza planeko puntu honi erantzun dio gure ikerketak eta baita liburutegiaren beraren kudeaketa eta antolaketa ere. Haatik, ateratako ondorioen artean nabarmentzekoa da **liburutegia antolatze**ko eta **kudeatzeko** duten denbora eta baliabide falta.

Aurrez azaldu bezala, koordinatzaileak beste jardun bat du, -jangela arduraduna da-, eta beraz, liburutegiari eskaini ahal dizkion ordu kopuru urriak oso zaila egiten du liburutegia antolatua izatea. Jardun osoko lana izan beharko luke liburutegi arduradunak, ahal dela, ikasturtero; baina gai-nontzean, liburutegia eguneratua izateko ahalegin berezitu bat egin beharko zen urteren batean.

Liburutegia hornitzerako orduan, zikloen lehen ikasturteko ikasleen familia bakoitzak liburu bat erosi eta eskolako liburutegira eraman behar du. Irakasleek ematen dizkiete gomendioen artean baina, oraingoz ez dago genero berdintasunaren inguruko irizpiderik. Ikerketa honen ostean eta liburutegia genero perspektiba zaintzen hornitzeko xedez, berdintasunaren aldeko ipuin



eta liburuak lortzea erronka bat izan behar du. Berdintasunaz haratago, jatorri ezberdinak eta familia anitzak aintzat hartzen dituzten liburuak lehenestea ere komenigarria izango zen. Beraz, gure ustez, familiei liburuak erosteko eskaria egiterakoan, genero berdintasuna zaintzen duten liburuen alde egitera animatu beharko zituzten.

Liburuen katalogatzeari erreparatuz gero, liburuan agertzen diren gaiak edota pertsonaien gaineko informazioa biltzea interesgarria iruditzen zaigu. Beraz, katalogatzerako orduan zein adierazle jaso behar den erabaki eta horiek aplikatzen hasi beharko zen.

Era berean, ikas komunitatea genero berdintasunaren bidean ibil dadin, kolektibo ezberdinei zuzendutako prestatuntzak ezinbestekoak dira, bereziki egon daitezkeen berrikuntzen jabe izan daitezen.

Bestetik, nahiz eta emakumeek historian egin duten ekarpena ikustarazteko ipuinak, maskulinitate berriak lantzen dituzten edo zehazki genero indarkeriari aurre hartzeko proposamenak oso interesgarriak izan, ez dugu arreta bakarrik gai konkretu eta zehatzak lantzen dituzten baliabidetan jarri behar. Ahal dela, **betaurreko moreak jantzi eta eskutan dugun edozein baliabide** aztertu beharko dugu.

Zehazki, honako hauek dira ikerketa egiteko erabili ditugun ADIERAZLEAK:

IDAZLEAK

PERTSONAIA NAGUSIA

- Pertsonaia protagonistaren sexua
- Protagonismo-mota banatua
- Talde protagonismoa
- Animaliak protagonista
- Emakumeen ekarpena historian

IKUSPEGI ANDOZENTRIKOA/ESTEREOTIPOAK

- Azalen kolorea
- Pertsonaien ekintzak
- Deskribapenak
- Ilustrazioak
- Testuak/ hizkuntza
- Sorginen trataera

ZAINTZA

ESPAZIOA

EMAKUMEA BESTE EGITEKOTAN/LAN EKINTZA

FAMILIA EGOERA

MAITASUN ERROMANTIKOA ETA INDARKERIA

JATORRI ANIZTASUNA

Azkenik, jakitun gara, gure herri txikia inguratzen duten bestelako kulturek aurrerapauso itzelak eman dituztela haur literaturan genero ikuspegia txertatzeko bidean. Lan honek bide horretan aldarri bat izan nahi du ere. **Gure haur literaturak generoaren bidea ibil dezan ahaleginak egin behar dira; batetik dagoena euskaratuz eta bestetik, sormenari ateak irekiz. Premia nabaria da, orain borondatea da behar dena.**

Haur literaturan genero ikuspegia txertatzearen beharra eta garrantzia mahai gainean ipini nahi izan dugu lan honekin, hurrei zuzendutako ipuinak eta generoa harilkatuz, berdintasunean oinarrituen jendartea estu lotuko dugunaren uste osoz.



8. BIBLIOGRAFIA

- Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak? Emakunde
- Ipuin, liburu eta film moreen gida. Debako Ostolaza Udal liburutegia
- Ipuinak ez sexistak izateko gida. Urtxintxa Eskola eta Emaisía elkarteak.
- Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera. Eneko Fernandez. Tesia
- Ipuin eta liburu ez sexistak aukeratzeko gida. Lekeitio Barruan Hazi.
- La mochila violeta. Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa. Diputación de Granada- Delegación de Igualdad de Oportunidades y Juventud.

PAREAN
Elkartea



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa